

**Donostia 'n, Gipuzkoa 'ko Aldundi-Jauregian,  
1925 'ko Yoraiña 'ren 28 'an.**

Aurako batzaraldiko euskaltzain berak datoz eta urgazletatik batez.

Araudiak aginizen duanez otoitza egin da.

1. Azkue jaunak euskal-esakerak (modismos), berak bilduak irakuri ditu.

2. Batzaraldi ontan geundela, Eusko-lkaskuntza' ko gelan, Juan Karlos Geña jauna sartu da. Altxa dira euskaltzain guziak ta esku eman ta agur egin diote. Alkia eman zaio. Azkue'k jaraitu du bere lana ta orixe bukatu duenean, besterik izan ez ta otoitzez amaitu da batzaraldi au.

---

**Donostia 'n, Gipuzkoa 'ko Aldundi-Jauregian,  
1925 'ko Oñilaren 28 'an.**

Azkue maipuru dala euskaltzain abek agertu dira : Kanpion, Urkijo, Landeñetxe, Eguskitza, Olabide, Intzagarai, Intza ta Lakonbe. Otoitzez asi da batzaraldia.

1. Aifa Intza'k iragartzen digu : Iruña'ko Gotzai jauna alegintzen dala Euskeraren alde. Baziran apaiz batzuek, erderaz itzaldiak egiten zituztenak, euskaldun osoak beren eleiztar ta entzuleak izanik. Auxe zirao kendu du Gotzai jaunak ta bere agindu zoñotzez ez dute apaiz oiek aurerantzean erdratzko itzaldirik